

IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

CEIP GORONDAGANE HLHI

1.- Ikastetxeko testuingurua.

- 1.1. Ikastetxearen testuinguruaren eta ibilbidearen azterketa.
- 1.2. Hezkuntza-beharren azterketa, ikasleen ikaskuntza-emaitzetan oinarriturik.
- 1.3. Ikastetxearen hezkuntza praktika orokorraren eta antolakuntzaren azterketa.

2.- Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak.

3.- Helburuak eta lehentasunak.

4.- Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak.

4.1. Curriculumaren esparrua.

- 4.1.1. Irizpide metodologikoa eta praktiken ezaugarriak.
- 4.1.2. Ebaluazioa.
- 4.1.3. Aniztasunari erantzutea.
- 4.1.4. Orientabidea eta tutoretza.
- 4.1.5. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua.
- 4.1.6. Prestakuntza eta berrikuntza.

4.2. Antolamenduaren esparrua.

- 4.2.1. Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendu eta kudeaketa.
- 4.2.2. Parte hartzeko ereduak.
- 4.2.3. Bizikidetzak eta Hezkidetzak.

5.- Iraunaldia.

6.- Eranskinak.

1.- Ikastetxeko testuingurua.

1.1. Ikastetxearen testuinguruaren eta ibilbidearen azterketa.

Gorondagane Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea Sondika herrian dago. Txorierrin kokaturik, Loiu eta Sondikako familiek, erreferentea den hezkuntza publikora seme-alabak ekartzen dituzte. Derio, Zamudio, Lezama , Larrabetzu eta Loiuarekin bat Txorierriko mankomunitatea osatzen da.

Gorondagane eskola 1984-85 ikasturtean sortu zen eta D ereduko, 2 lerroko HH eta LHko eskola da. Eskola dagoen herria nahiko erdalduna dela esan behar da. Azken urteotan, euskaldunen portzentajea %2,17 igo da eta, 2014. urtean, %39,15ra heldu zen. Zentroan euskararen erabilera ertaina da. Indize hori igotzea gure helburu nagusienetarikoa bat izango da.

Ikasleriaren familiek gehienbat gazteleraz hitz egiten dute, baina azken urteotan familia euskaldunen kopurua gorantz doa. Normaltasunez, kultura eta sozio-ekonomiko errealitate ezberdinak elkarrekin daude, familia tipologia ezberdinak izanez. Diagnosi frogetan emandako datuen arabera, gure ISECa erdi-altua mailakoa da.

Familiekin ditugun harremanak oso estuak dira. Kurtso hasieran egiten diren bileretan, partaidetza kopurua %80ekoa baino altuagoa izaten da eta, urtean zehar, bokalekin egiten diren bilerak (tutoreek edo ikasketa buruak deituak) eraginkorrak dira. Bestetik, IGEko ordezkariekin dauden harremanak oso ondo baloratzen dira: orduz kanpoko ekintzen ardura dute, hainbat ekintzetan parte hartuz,...

Sondikako udalarekin, zerbitzu sozialekin, Txorierriko mankomunitatearekin eta berritzegunearekin, bereziki, harremanak daude eta hezkuntza praktikarekin zerikusia duten beste bilera eta foroetan ere parte hartzen da.

Interneten zintzilikaturik dago gure WEB orria ; www.gorondagane.com ; bertan eskolako informazio osoa biltzen da eta, bere funtzioa, eskola eta gizarte osoari zabaltzea da.

Curiculumean inguruneak duen garrantzia indartzeko eskolak zeharkako jarduerak antolatzen ditu: ingurugiro gunetarako bisitak, egonaldiak, birziklapena, kontsumoa murrizten ,...

Aniztasuna eta integrazioa lantzen da ikasleen ezaugarri pertsonalak zein gizartekoak kontuan harturik.

Hezkidetza eta bizikidetza eguneroko lanketan sartuta daude: errespetuan, hizkuntzan, espazioetan, jantokian, jolastean ...

1.2. Hezkuntza-beharren azterketa, ikasleen ikaskuntza-emaitzetan oinarriturik.

Zentroan, kurtso bukaerako eskolako emaitzak aztertuta eta Autonomia Erkidegoaren bataz bestekoarekin alderatuta, ez dagoela alde handirik ikusten da. Ostean, hausnarketa egiten da ikasleen emaitzen hobekuntzara abiatuz.

Horretaz gain, barne zein kanpoko frogak azterturik, ikasleen gaitasun guztietan aurrerapausoak eman daitezten, Hobekuntza Plana urtero diseinatu eta martxan ipintzen da.

1.3. Ikastetxearen hezkuntza-praktika orokorraren eta antolakuntzaren azterketa.

Eskolan finkatu diren dokumentuak eta tresnak, praktikak bateratzeko eta hobetzeko baliogarriak dira. Hausnarketa etengabe egiten da eta garrantzi handikoa da. Prestakuntzari dagokionez, jardunaldi, mintegi, ikastaro ezberdinetan parte hartzen da eta orokortu behar dira.

Ikastetxearen dokumentu nagusiak:

Hezkuntza Proiektua

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) ikastetxearen erabaki eta proiektu handiei gorpuzta, koherentzia eta orientazioa ematen dien agiria da.

Zuzendaritza Proiektua

Ikastetxeko jarduera antolatzeko eta arautzeko tresna da, eta, alde horretatik, koherentzia gorde behar du beste proiektuekin: hezkuntza-proiektuarekin, curriculum proiektuarekin, ildo estrategikoekin, antolaketa eta funtzionamendu arauekin. Zuzendaria taldearen konpromiso esplizitua da komunitatearen eta hezkuntza administrazioaren aurrean, denboraldi jakin batean lortu nahi duena adieraztea.

Elkarbizitza Plana

Elkarbizitza Plana ikastetxeko elkarbizitza kudeatzeko dokumentua da. Harreman positiboak eta elkarbizitza osasungarria eraikitzen laguntzea, horixe da bere xedea. Komunitateko kide guztiek jakin behar dute baloratu eta entzun egingo zaiela, eta, ikastetxean erabakiak hartzeko orduan, erantzukizuna eta partaidetza izango dutela.

Urteko Plana

Ikastetxeak ikasturterako dituen helburuak Urteko Planean (IUP) zehazten dira. Ikasturtean zehar ikastetxearen antolakuntzarako eta funtzionamendurako oinarritzko baliabidea den aldetik, eskolak ezarritako helburuak kontuan hartu, eta haien arabera egituratuta eta haietara egokituta dago.

Memoria

Urteko memoria epe laburrerako balio duen kudeaketa-baliabide bat da eta sistematikoki aztertzen du, ikastetxeak nola funtzionatzen duen eta ikasleen ikaskuntza-prozesua eta emaitzak zertan diren. Beraz, garrantzi bikoitza du. Batetik, ebaluatzailea da, ikastetxean egindako jarduera adierazgarrienen azterketa eta balioespena egitea dakarrelako. Eta bestetik, gerora begirakoa ere bada, esku hartzeko eta hobekuntzak egiteko proposamen zehatzak egiten dituelako.

Parte hartze eta koordinazio organoak:

OOG

Ordezkaritza Organo Gorenaren (OOG) bidez, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazioko langileek, zerbitzuetako langileek eta Udalak CEIP Gorondagane HLHIren kudeaketan parte har dezakete, funtsezko erabakiak hartzea baitagozkio.

Klaustroa

Irakasleen berezko parte hartze organoa da. Are gehiago koordinazio didaktikorako ikastetxean dagoen organo gorena da. Klaustroak, halaber, ikastetxeko hezkuntza-alderdi guztiak planeatzeko, koordinatzeko, erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du.

Klaustroak zuzendaria izango du buru eta ikastetxean irakasle bezala aritzen diren guztiek osatzen dute. CEIP Gorondagane HLHIko idazkaria klaustroko idazkaria ere izango da.

Pedagogika Batzordea

Ikasketa buruak, aholkulariak eta zikloko koordinatzaileek pedagogi batzordea osatzen dute eta astean behin biltzen da.

Ikaskuntza irakaskuntza prozesuan irakasleen koordinazioa eta elkarlana batzorde honen bidez egiten da.

Zikloak

Haur Hezkuntzako eta Lehen hezkuntzako lana zikloetan lantzen da koordinatzaileak bideratuz. Klaustrokide guztiak zikloetako partaideak dira.

2.- Printzipioak, balioak eta ezaugarriak.

2.1. Eskola plurala, inklusiboa eta giza duintasunaren balioa, funtsezko erreferente etiko gisa.

Eskolak aniztasuna kontuan hartzen du, dauden ikasleak ez baitira berdinak. Ez da baztertzailerik. Ikasleen aniztasuna esparru ezberdinetan agertzen da: sexuan, adinean, maila kognitiboan, emozio eta sentimenduen kudeaketan, interesetan, lan egiteko erritmoetan ,...

Aniztasun honetan, eskolak umea ulertu eta onartu egingo du, bere ezaugarri bereziak kontuan hartuz.

Dena posible izateko, eskolak beharrezkoak diren aldaketak egingo ditu, eta aniztasuna ezinbestekotzat joko du eraikitze prozesuan.

2.2. Euskalduna eta hizkuntzen tratamendu integratua.

Euskaraz bizi den eskola da, Eskolako espazio eta egoera guztietan euskara erabiliko du; hizkuntza nagusia izanik.

Euskal kulturarekin zerikusia duten ekintzetan interesa eta ekimenarekin parte hartuko du.

2.3. Giza eskubideak eta bizikidetzaren demokratikoaren printzipioak dira erreferentzia.

Baloretan hezten duen eskola da. Eskolan guztiak era onean elkarrekin bizi dira, errespetu osoz. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta gatazka ebazpen baketsuaren aldeko neurriak eta ekimenak proposatzen du.

2.4. Aukera-berdintasuna bermatzailea. Bidezkoa eta kalitatezkoa.

Ikasleek aukera guztiak izan ditzaten bermatzen du, ahalmenak eta gaitasunak garatzea edozein egoeratan erabiltzeko.

Irakasleengan etengabeko hausnarketa sustatuko du eta, ondorioz, beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu: hobekuntzara bideratuz.

2.5. Pertsonaren garapen integralaren sustatzailea.

Pertsonaren arlo guztiak kontuan hartuko ditu: kognitiboa, soziala, emozionala, fisikoa, afektiboa, eta abar; hauek guztiak modu orekatu batean lortzen ahaleginduko da.

Ikasle konpetenteak egin nahi dituen eskola da. Pertsona bat konpetentea da, ikasteko ahamena duenean, egoera problematikoak identifika ditzakeenean eta ebazteko dakiena erabiltzen duenean.

3. Helburuak eta lehentasunak.

1. HELBURUA: Gure ikasleak giza eskubideen, balio etikoen eta askatasunen errespetuan heztea, bizikidetzaren demokratikoaren erreferentzia izanik.

Helburuaren garapena. Estrategiak:

Ikasleak onartuak eta baloratuak sentitu behar dira; inguru segurua bat eta arreta espezifikoak eskaini behar zaie. Haur Hezkuntzatik hasita, ikasleak elkarbizitzan eta gizarte anitzaren kontzeptuan hezitu behar dira.

Horretarako, estrategia hauetaz baliatzen gara;

- Pertsona bat errespetatzeko eta ez mintzeko, bere baloreak, jarrerak eta izaera ezagutzea.
- Egiten den guztiaren aurrean arrazoiak ematea, ideiak argumentatzea eta arrazoen bidez defendatzea.
- Besteek esaten dutena entzutea eta bere lekuan jartzea; norberarenak ez diren ikuspegiak errespetatu, elkarrizketa landu eta norberari dagozkion ardurak hartu.
- Eguneroko bizitzan errespetuz jokatzeko laguntzen gaituzten jarrerak bultzatzea.
- Inguruarekiko eta gizartearekiko konpromiso solidarioan heztea, gizabidezko ohiturak garatuta.
- Pertsonakiko eta taldeekiko tolerantzia izatea eta lankidetzaren eta elkartasun jarrerak izatea.
- Pertsonekin harremanak izatean eta gizarte-jardueretan parte hartzean, gizartearen arauak eta ohiturak betetzea.
- Giro on bat sortzea pertsona guztiak gustura sentitzeko.
- Gatazka prebenitzeko eta gatazkak konpontzeko trebetasuna eskuratzea eta prozedurak zehaztea.

2. HELBURUA: Ikasleen inklusioa helburu duten hezkuntza-proposamenak bultzatzea, ikasleen segimendu pertsonalizatua eginez. Aukera-berdintasuna bermatzailea. Ekitatiboa eta kalitatekoa.

Helburuaren garapena. Estrategiak:

Aniztasuna, ezberdintasunak eta pluraltasuna kontuan hartuta programatzea eta ikasleen ikas-prozesuan norberaren berezitasunak kontuan izatea.

Horretarako, estrategia hauetaz baliatzen gara;

- Pertsonak berdinek ez garenez, aniztasuna onartzea.
- Hezkuntza proposamenetan, aniztasuna arlo guztietan (interesak, jarrerak, afektuak, lan egiteko erritmoak, ezagutzak, ahalmenak, abileziak, hizkuntza, sexua, ezaugarri fisikoak,...) ematen dela kontuan hartzea.
- Ikasleen jarraipena egitea, bakoitzaren ikas-irakaskuntzaren prozesuari erantzun egokia ematea.
- Ikasleak taldekatzeko heterogeneotasuna, denbora eta espazioa kontuan hartzea.
- Ikasle beharren arabera, metodologia egokitzea (lan kooperatiboa, bikoteka,...)
- Errefortzu programa aurrera eramatea.

- Ikastetxeko giza baliabide eta baliabide material guztiak era egoki eta eraginkorrean kudeatzea, ikasleen gaitasunak garatzeko .
- Irakasleei prestakuntza eta eguneratze jarraitua izateko aukera eskaintzea, ikastetxearen beharrak eta baliabideak kontuan hartuta.

3. HELBURUA: Hezkuntza-komunitateko kide guztiak gure proiektu parte-hartzaile honetan integratzea.

Helburuaren garapena. Estrategiak:

Hezkuntza komunitate osoaren ekarpen eta iradokizunak, irakasleriarenak bereziki, kontuan hartuko dira formazio ekintzak antolatzeko. Bere antolaketak, denbora, errekurtsu eta horien ondorioen kudeaketa suposatuko du.

Horretarako, estrategia hauetaz baliatzen gara;

- Elkarrekin lan egitea, eskolako helburu komunak aurrera ateratzeko.
- Dagokien organo eta funtzionamendu prozedura ezberdinak erabiliz, eskolako ikasle, familia, irakasle eta ez irakasle guztien iritzia kontuan hartzea.

4. HELBURUA: Euskalduna eta hizkuntzen tratamendu integratua.

Helburuaren garapena. Estrategiak:

Ikastetxean hiru hizkuntzek presentzia izango dute, bakoitzak bere berezitasunik izanik. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan erabiliko den hizkuntza euskara izango da. Eskola harremanetan, egoera ez formaletan ere, euskararen erabilera nagusi izango da eta testuinguru harremanetarako erabilera sustatuko da. Gaztelanian hizkuntza-gaitasunak gauzatu eta bermatuko dira. Era berean, gure ikasleak ingelesean trebatzeko hizkuntza honen ulermena eta erabilera ahal denik eta gehien indartuko da.

Horretarako, estrategia hauetaz baliatzen gara;

- Euskararen erabilera sustatzea eskolan:
 - Metodologia parte hartzaile erabiliz (ahozkotasunari denbora emanez, gai esanguratsuak eta funtzionalak landuz, baliabideak eskuratuz, jarduera anitzak proposatuz,...)
- Normalkuntza proiektua aurrera eramatea.
- Euskarazko eta gaztelaniazko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak ondo ulertzea, autonomiaz eta sormenez adieraztea.
- Ingeleseko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak oinarrizko autonomiaz ulertzea eta adieraztea.

5. HELBURUA: Pertsonaren garapen integralaren sustatzailea.

Helburuaren garapena. Estrategiak:

Ikasleek bizitzako egoera problematiko ezberdinak ebazteko behar diren baliabideak erabiltzen jakin behar dute, ikasle zoriontsu, arduratsu eta parte-hartzaile, langile, sortzaile, konpetente eta solidarioa izateko.

Horretarako, estrategia hauetaz baliatzen gara;

- Autoestima eta gaitasun emozionalak lantzea eta horiek adieraztea nortasunaren esparru guztietan.
- Arte-ondarea eta kultura-ondarea ezagutzea eta errespetatzea.
- Ikas-irakaskuntza prozesuan teknologia berriei garrantzia ematea.
- Ikasleek mota ezberdinetako adierazpenaz gozatzea eta sormena garatzea.
- Jakintzaren eta esperientziaren eremuetako ikas-egoerak identifikatzea eta ebaztea.

4.- Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak.

4.1. Curriculumaren esparrua.

4.1.1. Irizpide metodologikoa eta praktiken ezaugarriak.

Eskolak ikasle konpetenteak egin nahi ditu. Pertsona bat konpetentea da ikasteko ahalmena duenean, egoera problematikoak identifika ditzakeenean eta ebazteko dakiena erabiltzen duenean, beti ere ikasten jarraitzeko.

Metodologian premiazkoa da ikasleentzako testuinguru interesgarri eta errealak sortzea. Testuinguru hauek zentzua izango dute, ikasketa esanguratsu eta funtzionalak ahalbideratuko dituzte.

Ikasgaiak eta ariketak esanguratsuak izateko testuinguruan eta ikasleen interesekin lotuta egongo dira.

Ikasleen autonomia garatzeko ikasleei pentsarazi egiten dieten ariketak eta jarduerak burutuko dira.

Eskolaren lana izango da ikasleen galderei erantzuna bilatzen laguntzea eta ikerketa prozesuak proposatzea lan proiektuen bidez.

Gelako lana era ezberdinetan antolatuko da (banakakoa, binaka, talde txikietan,...) jarduerak eskatzen duen arabera. Jakingaia aberasteko eta elkar ikasten estrategiak indartzeko ikasle guztien partaidetza sustatuko da, beti ikasle bakoitzaren berezitasunak kontuan izanik.

Gure ikas-irakaskuntza prozesuan teknologia berrien presentzia bermatuko da.

4.1.2. Ebaluazioa.

Ebaluazioa esaten denean ikasleen ikasketetan helburuak lortu ahal izateko prozesua gidatuko duen jardueren balorazioa hitz egiten da. Ebaluazioak azalduko du ikaskuntza emateko zelako aurrerapenak, zailtasunak, oztopoak,... agertu diren, eta nolako erabakiak hartu behar diren prozesua aurrera joan dadin, eta ikasleak arrakasta izan dezan.

Ikasleen gaitasunen ebaluazioak ezaugarri hauek izango ditu:

- Banakakoa: ikasle bakoitza ebaluatuko da, bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Horretarako prozesuaren amaieran izandako eboluzioa, aurrerapena edota zailtasunak baloratuko dira.
- Etengabekoa: ikasleen prozesuan zehar egindako jarduerak, eta euren garapenean izandako eboluzioa hartuko da eta ez prozesuaren amaieran lortutakoa bakarrik.
- Globala: pertsonaren esparru ezberdinak kontuan hartuko dira ebaluazioa egiteko orduan: kognitiboa, curriculumaren garapena, emozionala, afektiboa eta harremanetarakoa.

Ebaluaziorako agenteak hurrengo hauek izango dira:

- Irakaslea: Bera izango da ebaluazioaren arduradun nagusia. Irakasleak ebaluatuko du: helburuen lorpena, jardueren egokitasuna, parte-hartzaileen inplikazioa eta ebaluazioa bera.
- Ikaslea: auto-ebaluazioaren bidez ikasleak bere iritzia emango du eta kontuan hartuko da zer ikasi duen, zelan sentitu den, non izan dituen oztopoak, zertan sakondu gehiago,...
- Familiak: familiei iritzia eskatuko zaie umeen ezaugarriak hobeto ezagutzeko; horrela lan egiteko modua bateratzen da
- Kanpoko agenteak: ikuskaritza eta kanpoko frogak.

Ebaluazioa ahalik eta objektiboena egiteko ezinbestekoa da irakasleak tresna ezberdinak erabiltzea hala nola: ekoizpenak, azterketak, etxeko lanak, ikasleen behaketak ... Hau guztia erregistratuta geldituko da irakaslearen koadernoan edota kontrol-orrietan.

Ikasle talde bereko irakasleek ebaluazio konpartitua egingo dute. Horretarako hiruhileko saioak erabiliko dira. Denen iritzia kontuan hartuko da eta aparteko neurriak hartu behar badira irakaslearen erantzukizuna izango da. Ebaluazio saio hauetan irakasleaz gain ikasketa burua eta aholkularia partaideak izango dira.

4.1.3. Aniztasunari erantzutea.

Ikasleria anitza da; ezagutza maila ezberdinak daude, ikasketa prozesuan zehar aurrera egiteko erabiltzen dituzte estrategietan, beraiek dituzten jakin-minetan ,... Ikasleak aniztasunarekiko errespetuan heztean pertsona bezala osoagoak izatea lortzen da.

Errealitate honen trataeran modu ezberdinak egon daitezke:

- Integrazioaren ikuspuntua: Umea ezagutu, gabeziak ulertu, aldaketak ahalbideratu eta taldeari egokitzeko bidea egiten laguntzen diona.
- Inklusibitatearen ikuspuntua: Umea ulertu eta onartu egiten da, bere ezaugarri bereziak kontuan hartzen dira, eskolan tokia eginez. Tokia izateko gelan, giroan eta eskolako esparru ezberdinetan aldaketak egin beharko dira askotan.

Eskolak aniztasunari erantzuna emateko dituen baliabide guztiak erabiliko ditu: laguntza irakasleak, taldekatzea, metodologia ,...

4.1.4. Orientabidea eta tutoretza.

Tutoretza plangintza honekin ikasleen aurrean tutoreak izan behar duen zeregina bilduko da.

Tutoreari dagokio tutoretza plana garatzea, irakasle taldearekin elkarlanean eta gelan eragile duten beste batzuekin koordinatuta: irakasle espezialista, laguntza ematen dutenak, familiak, jantokiko arduraduna ...

Tutoretza lanaren helburua da ikasleak bere burua ezagutzea eta onartzea; sozializazio prozesua hobetzeko eta erabakitzen eta hizkuntza arazoak konpontzen ikasteko.

Helburu hauek lortzeko, curriculumaren garapenerako erabiliko den egutegia osoan islatuko da eta ez tutoretza orduetan bakarrik. Egoerak era kontestualizatu batean tratatu behar dira, testu inguruak ematen diolako zentsua, aztertzeke aukera eta ikasleen garapena ziurtatzeko modua.

4.1.5. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua.

Eskolako hezkuntza proiektuaren atal garrantzitsu bat da ikasleen eleaniztasuna ziurtatzea. Hau lortzeko beharrezkoa da Hizkuntza Proiektu zehaztea eta aurrera eramatea.

Eskolaldiaren amaieran, hizkuntzarako gaitasuna behar bezala eskuratua izateko, ahozko eta idatzizko hizkuntza menderatu behar dira eta ingelesaren erabilera funtzionala izan behar da.

Hizkuntzen irakaskuntza trataera bateratuan oinarrituko da, hizkuntza batean landutakoa beste edozein hizkuntzara transferitzen delako. Beraz, beharrezkoa da hizkuntza bakoitzean hizkuntza horri dagokiona lantzea, eta guztien artean komunean dutena partekatzea, beti ere bakoitza modu egokian erabiltzeko helburu izanik.

Hizkuntzaren izaera komunikatiboa denez, ahozkotasanari garrantzi handia emango zaio. Irakasleak hizkuntzaren erabileraren eredia direnez, edozein ikasgaietan hizkuntzaren erabilera egokia zainduko dute, bere aldetik eta ikasleen aldetik.

4.1.6. Prestakuntza eta berrikuntza.

Irakasleen prestakuntza, trebetasuna, motibazioa eta inplikazioa ezinbestekoak dira ikas-irakaskuntza prozesuan etengabeko hobekuntza lortzeko. Horretarako, nahitaezkoa da prestakuntza proposamen guztien artean koherentzia izatea gure helburuekin, eta hezkuntza komunitate osoak arduraz eta konpromisoz jokatzeko.

Prestakuntza eta berrikuntzaren ezaugarriak izan behar dira:

- Planifikatutako jarduerekin lotuta egon behar da.
- Konpetentzietan oinarrituta egon behar da.
- Eguneratze zientifikoa, didaktikoa eta teknologikoa eman behar dira.
- Gizarte-trebetasunak eta alderdi emozionalak kontuan hartu behar dira.
- Irakasleen arteko lankidetzaren prozesuak sustatzea, pertsonen arteko prestakuntza eta esperientziak trukatzeko eta sareak sortzeko.
- Prestakuntzarako plangintzak egiterakoan, ardatza ikastetxea izan behar da.

4.2. Antolamenduaren esparrua.

4.2.1. Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa.

Eskola antolaketa.

Kurtsoen planifikazioa, irakasleriaren eginkizunak eta ordutegiak, eta baliabideen planifikazioa egiteko Urteko Planean eta indarrean dauden irizpideen arabera egiten da:

- Irakasleriaren kargu eta ardurak finkatu eta esleitu egiten dira ikasturteko planaren arabera.
- Ordutegiak finkatzeko irizpide pedagogikoak eta antolakuntzakoak ezarri dira.
- Irakasle bakoitzaren saio banaketa.
- Ikasleria taldekatzea.
- Ordezkapenak betetzea.
- Espazioen kudeaketa.

Eskolako zerbitzuak eta orduz kanpoko ekintzak.

Jantokia eta garraioa kudeatzeko Departamentuko aplikazioak erabiltzen dira. Bestetik, IGEk orduz kanpoko ekintzak antolatuta eta ezartzen ditu.

Baliabide ekonomikoak.

Baliabide ekonomikoak kudeatzeko Departamenduko aplikazioa erabiltzen da.. Batzorde baten bitartez eskolako beharrak aurreikusten dira eta lehentasunak markatzen dira.

4.2.2. Parte hartzeko eredia.

Eskolan parte hartzea ematen da alderdi hauetan:

- Irakasleek ikastetxearen proiektu komunaren kudeaketan erantzukizuna izatea.
- Ikasleei eskola-jarduerako esparru guztietan parte hartzeko bideak eskaintzea.
- Familien eta irakasleak ez diren langileen parte hartzea bultzatzea ikastetxearen kudeaketan: gelako ordezkariak, ordezkarien batzordea, boluntarioak ...

4.2.3. Bizikidetzeta eta Hezkidetzeta.

Bizikidetzeta eta Hezkidetzeta Planen barruan, definizioa, helburuak, parte hartzeko ereduak ... finkatuta daude. Helburu hauek garatzeko, egiten diren jarduerak, denboralizazioa, arduradunak eta lorpen adierazleak urtero Urteko Planean islatzen dira.

5.- Iraunaldia eta berrikuspena.

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren indarraldia bermatzeko, berrikusteko eta eguneratzeko prozedura bat ezarriko da:

- IHPren edukiak lantzea familiekin eduki beharreko bileretan.
- IHPren edukiak lantzea ikastetxera iritsi berriak diren profesionalen harrera-prozesuan.
- IHP ezagutaraztea matrikulazio-prozesuetan, halan eskatzen denean.
- IHP aipatzea ikastetxearen hurrengo planetan (ICP, Urteko plana, Bizikidetzaplana, Zuzendaritza proiektua, etab.)
- Hezkuntzako estamentu guztien iradokizunen bilketa sistema zabaltzea
- IHP eguneratzerako aldaketen beharrak izatea: langile kopuru nabarmen aldatzea, ikastetxeko zuzendaritza aldatzea, ildo metodologikoan aldaketa izatea, proiektu berrien ezarpena ...
- AJAn hezkuntza proiektuarekiko atxikimendua eguneratzeko epeak zehaztea.